

“GARAIPEN-ODA”
eta
“ITSASOKO ODA”

FERNANDO PESSOA



© Marjinalia Bilduma
Itzulpena: X. Galarreta
1999. urtea (abuztua)
Lege-Gordailua: SS-895/99

GARAIPEN-ODA

Lantegiko lanpara elektriko handiek ematen duten
argi mingarriari:
sukarra dut eta idazten ari naiz.
Hortzak marraskatuz idazten dut, basapiztia naizela
gauza hauen edertasunarentzat,
arbasoek zeharo ezezagun zituzten gauza hauen
edertasunarentzat.

O gurpilak, o engranajeak, r-r-r-r-r-r-r eternala!
Makinismo amorratuen espasmo oldarkor eta
geldiarazia!
Ammoratuak nigan eta nigandik kanpo,
disekaturik dauzkadan nerbio orotatik,
sentitzeko balio didan guztiaren papila orotatik!
Ezpainak ditut lehor, o gaurko zarata izugarriok,
hurbilegi entzuten dizkizuedalako,
eta burua sutan daukat nire sentazioak gehiegizko
espresioz kantatu nahi dizkizuedalako,
—o makinok!— zuekiko dudan gehiegizko
garaikidetasun hau!

Sukarti eta tropikoetako izadiari bezala motoreei
begira
—burdinaz eta suaz eta indarrez egindako tropiko
erraldoiak!—,
abesten dut, eta orainaldia abesten dut, eta baita
iraganaldia eta etorkizuna ere.
Orainaldia iragan osoa eta etorkizun osoa delako

eta makinena eta argi elektrikoaren barruan Platon eta Virgilio kausitzen ditudalako soil-soilik aintzinatea benetakoa izan zelako eta Virgilio eta Platon gizatiarrak izan zirelako, eta Alexandro Handiaren puskak —berrogeita hamargarren mendekoak agian—, ehungarren mendeko Eskiloren burmuinetan sukarra izango zuten atomoak, transmisio-uhala eta enbolo eta bolante hauetatik dabilta, orroaka, karraska, marmarka, zalapartaka, klanka-klanka, gorputzari soberazko laztanak eginez (arimari, ordea, laztan bakarra).

A, nire burua guztiz adieraztea motore baten antzera!
Goitik behera makina bezalakoa izatea!
Bizitzan zehar arrakastatsu ibiltzea ibilgailurik berrienaren parean!
Guzti honetaz fisikoki nire baitan sartu ahal izatea, bederen,
nire baitakoa guztiz urratzea, zeharo irekitzea barrutik, belaki-antzeko bihurtzea flora bikain, beltz, artifizial eta asezin honek dituen olio-lurrin eta bero eta ikatz guztien aurrean!

Dinamika guztietako anaitasuna!
Tren kementsuei darien burdinazko pirrika kosmopolitan aktiboki parte hartzen duen amorru nahasia, itsasontzietako zama-garratzaile-lana,

altzamaien bira lubriko eta motela,
lantegietako jendetza diziplinatua,
eta transmisio-uhalen xuxurla kuasi-isiltsu eta
monotonoa!

Ordu europarrak, eraginkorrak, makinismoaren
eta zeregin baliagarrien artean lorakoz lotuta!
Kafetegietan gelditutako hiri handiak,
Kafetegietan —ezereztasun zaratatsuen oasia,
non kristalizatu eta lehiatu egiten diren
Baliozkoaren marmarrak eta keinuak eta Aurrera
Doanaren
gurpilak, eta gurpil horztunak eta txardangoak.
Portu eta estazioetako Minerva berri, arimagabea!
Momentuko estatura duten berotasun berriak!
Gilak burdinazko xaflazkoak irriz ontzioletan
arrimatuta,
edo lehor, gorantz, kaltetako plano makurretan!
Nazioartekoaz, Atlantikoaz bestaldeko jarduera,
Canadian-Pacific!
Argiak eta denbora sukartiro galtzea tabernetan,
hoteletan,
Longchamp-etan eta Derby-etan eta Ascot-etan,
eta Piccadilli-etan eta Avenues de l'Opera-koetan
nire ariman barrena denak sartuta!

Kaixo, kaleok; kaixo, plazok; kaixo, *la foule!*
Erakusleihoen aurrean pasatzen den oro, gelditzen
den oro!
Salerosleak; arloteak; gehiegikeriaz ongi jantzitako
escroc-ak;
klub aristokratikoetako kide nabarmenak;

irudi argal, anbiguoak; famili gurasoak lainotsuki
zorientsuak
eta aitatiarrak poltsikoz poltsiko txalekoa
zeharkatzen dien
urrezko katearaino!
Pasatzen den oro, pasatzen den oro eta inoiz
pasatzen ez dena!
Ematxarren presentzia gehiegikeriaz nabarmena,
emakume burgestxoen
huskeria interesgarria (eta auskalo zer besterik
barrutik!),
ama eta alaba orokorrean,
edozelako asmoz kalean dabiltzanak;
poliki pasatzen diren pederasten grazia eme eta
faltsua;
eta besterik gabe dotorea den jendea, paseatzen eta
beren buruak erakusten
eta barruan arima eta guzti daramatenak!

(A, nola gustatuko litzaidakeen honen guztionen
souteneur-ra izatea)

Ustelkeria politikoen edertasun miresgarria,
finantzaketen eta diplomaziaren eskandalu gozoak,
eraso politikoak kaleetan,
eta noizean behin errege-hilketa baten kometa
gaurko Zibilizazioaren zeru arrunt eta zuhurrak
Mirariz eta Arrandiaz argitzen dituenak!

Egunkarietako albiste gezurtatuak,
artikulu politikoak ez-egiazkotasunez egiazkoak,
passez-à-la-caisse albisteak, hilketa izugarriak—

bi zutabe, bigarren zutabera pasa direnak!
Tinta tipografikoaren usain freskoa!
Duela gutxi atxikitako kartelak, bustita oraindik!
Viens-de-parâitre horiak, gerriko zuridunak!
Zenbat maite zaituztedan denok, denok, denok,
zenbat maite zaituztedan modu guztietara,
begiekin eta belarriarekin eta usaimenarekin
eta ukimenarekin (zeinen garrantzitsua niretzat
zuek ukitzea!)
eta adimenarekin, antena bati eragin diozuen
dardara bezala!
A, nola jelosten diren nire zentzumenak zuen
kausagatik!

Ongarriak, azala kentzeko lurrin-makinak,
nekazaritzaren aurrerapenak!
Nekazaritzako kimika, eta merkataritza ia-ia
zientzia bilakatua!
O biajanteen erakusgaiak,
merkataritza-biajanteenak, industriako zaldun
ibiltarienak,
lantegien eta bulego lasaien giza-luzakinenak!

O oihalak erakusleihoetan, o manikiak, o azkeneko
figurinak!
O denek erosi nahi dituzten salerosgai alferrekoak!
Kaixo, hainbat ataletako biltegi handiak!
Kaixo, piztu ikusi eta desagertzen diren iragarki
argitsuak!
Kaixo, egun eraikitzen den guztiori, atzokoa ez-
bezalakoa den egungo guztiori!

E, ormigoi armatua, zementuzko morteurua, teknika berriak!

Lorioski hilgarriak diren armamentuen aurrerakadak!

Blindajeak, kanoiak, metrailadoreak, urpekontziak, aireplanoak!

Guztiok maite zaituzte, guztiok, basapiztiaren antzera.

Maite zaituztet karniborotasunez,
perbertsioz eta nire begirada
zuengan biribilkatuz, o gauza handiak, hutsalak,
baliagarriak, baliogabeak, ezdeusak,
o gauza txit modernoak,
o nire garaikideak, Unibertsoaren berehalako sistematik

hurbileko forma eta gaur egungoa!

Jainkoari buruzko Errebelazio metaliko eta dinamiko berria!

O lantegiak, o laborategiak, o *music-halls*, o *Luna-Parks*,

o korazatuak, o zubiak, o kai flotagarriak—
nire buru nahasian eta txingartsuan
zuez jabetzen naiz emakume eder batez bezala,
zuez guttiz jabetzen naiz maitatzen ez den,
kasualitatez topatzen dugun
eta txit interesgarria iruditzen zaigun emakume
eder batez bezala!

E-la-ó, biltegi handietako fatxadak!

E-la-ó, eraikin altuetako igogailuak!

E-la-ó, berrantolakuntza ministerialak!

Parlamentuak, politikak, aurrekontu-kontalariak,
aurrekontu faltsifikatuak!
(Aurrekontu bat zuhaitz bat bezain naturala da
eta parlamente bat tximeleta bat bezain ederra.)

Kaixo, oroz gaineko axola bizitza honetan,
den-dena bizitza baita, erakusleihenak
harribitxietatik
argizagien eta itsaso zahar eta solemnearen
arteko zubi misteriotsua den gaueraino, kostaldeak
garbitzen dituen eta Platon zinez Platon zenekoan
eta gaur errukiz bat-bera den,
zinezko presentzia zela eta barruan arima zeramala
Aristotelesekin hitz egiten zuen Platon berbera,
haren dizipulua
ez zen izango eta!

Ni motore batek birrinduta hil ninteke
edukitako emakumearen emate-sentimendu gozoaz.
Bota nazazue sutegien barrura!
Sar nazazue trenen azpian!
Makila nazazue ontzietan!
Masokismoa manikismoen bitartez!
Sadismoa ez-dakit-nongo modernismoaz eta nitaz
eta zarata hutsez!

Aupa, Derby-a irabazi duzun jockey-a,
bi kolorezkoa den zure *cap*-i kosk egitea!

(Hain altua izatea, ezen, ate batetik ere ezin
kabitzea!
A, begiratzea sexu-perbertsioa da niretzat!)

E, e, e, katedralok!
Utqidazue burua zuen izkinen aurka apurtzen,
eta altxa nazaten lurretik odoleztaturik
nor naizen inork ez dakiela!

O tranbiak, funikularrak, metropolitanoak,
igurtzi zaitezte nirekin espasmoraino!
Ui, ui, aiaiai!
Jaurki izkidazue barre-algarak aurpegi-aurpegian,
o parrandazalez eta emagalduz jositako ibilgailuak,
o kaleetako jendetza arruntak —ez alaiak ez
tristeak— ,
kolore anitzeko ibai izengabea non bainu har
dezakedan nik nahi nukeen bezala!

A, zer-nolako bizitza konplexuak, zer-nolako
gauzak hauetatik guztiotatik han etxe inguruetan!
A, jakitea guztien bizitzaz, diru-estuasunez,
nork bere gelan bakarka dituen pentsamenduez
eta inork bera ikusten ez duenean egiten dituen
keinuez!
Hori guztiori ez jakitea den-dena ez jakitea da, o
amorrua,
o amorrua sukar jelsia eta gose antzekoa
aurpegia maskaltzen didana eta eskuak astintzen
dizkidana
krispazio taiugabeetan jendetzen erdi-erdian
suertatzez beteriko kaleetan!

A, eta jende zakar eta zikina, betiere betikoa
ematen duena,

hitz gorriak esaten dituen eguneroko hitzak
bailiran,
(euren semeak lapurretan ari dira janaridenden
aurrean,
eta euren alabak zortzi urterekin —eta hau ederra
iruditzen zait eta gustatzen zait—
itxura oneko gizonak masturbatzen dituzte
eskailerako begian!)
A aldamiotatik ibiltzen den jendaila eta etxera
joaten dena ia gezurrezkoak diren kalesketan zehar
estuasunen eta usteltasunaren poderioz!
Txakurren antzera bizi den gizakion kasta
miresgarria,
sistema moral guztien azpitik dagoena,
erlijiorik ez baita berarentzat asmatua izan,
ezta arterik ere,
ez eta ere haiantzako politikaririk!
Zenbat maite zaituztedan denoi, holakoxeak
izateagatik,
ez moralik gabeak (hain baxuak nola zareten) ez
onak ez gaiztoak,
aurrerakuntza guztietatik urrun,
bizitzaren itsas hondoko fauna miresgarria!

(Nire etxeko baratzeko norian
astoa bueltaka eta bueltaka ari da,
eta munduaren misterioa tamaina berekoa da.
Garbi ezazu izerdia besoaz, pozik ez dagoen langile
horrek.
Eguzki-argiak esferen isiltasuna itotzen du
eta denok hil beharra daukagu,
o ilunabarreko pinudi goibelak,

pinudi haietan nire haurtzaroa bai baitzen orain ez-
bezalako

beste zerbait...)

Baina, a, berriro ere etengabeko amorrualdi
mekanikoa!

Berriro ere autobusen eldarnio asaldagarria.

Eta berriro ere tren guztien barruan —munduko

leku guztietakoetan— denbora berera joatearen

amorrua,

momentu honetan aingurak jasotzen dituzten edota

portuetatik aldentzen ari diren ontzi guztietako

kareletik agur esatearen amorru horixe,

O burdina, o altzairua, o aluminioa, o burdinazko

xafla makurrak!

O portuak, o kaiak, o trenak, o altzamaiak, o atoi-
ontziak!

Kaixo, tren-hondamen izugarriak!

Kaixo, meazulo eroriak!

Kaixo, transatlantiko handien naufragio

zoragarriak!

Kaixo, e, han-hor-hemengo iraultzak!

Erakunde arteko liskarrak, gerrak, itunak,

inbasioak,

zarata, bidegabekeriak, bortxakeriak, eta agian

hurbileko amaiera,

barbaro horien inbasio handia European,

eta beste Eguzki bat Zeruertzean!

Zer axola du honek guztionek, baina zer axola dio

honek guztionek

gure garaiotako zarata distiratsu eta gorriari,

gaur egungo zibilizazioaren zarata krudel eta
zoragarriari?
Honek guztionek den-dena itzaltzen du, Momentua
izan ezik,
suginarena bezalako enbor biluzi eta beroko
Momentua,
bakante guztien pasabidea den Momentu
dinamikoa,
burdinarena eta brontzearena eta metalen
mozkorkadarena.

Tira trenak, tira zubiak, tira afal orduko hotelak,
tira mota guztietako tresnak, burdinazkoak,
landugabeak, minimoak,
doitasun-lanabesak, birrintzeko eta lurra aztertzeko
aparatuak,
lantegiak, barautsak, errotatibak!
Tira, tira, tira!
Tira, elektrizitatea, Materiaren zain gaixotuak!
Tira, haririk gabeko telegrafia, Inkontzientearen
begikotasun mekanikoa!
Tira tunelak, tira kanalak, Panama, Kiel, Suez!
Tira, iragan osoa orainaldiaren barruan!
Tira, etorkizun osoa gure barruan jada! Tira!
Tira, tira, tira!
Burdinazko fruituak eta ardatz/lantegi
kosmopolitaren baliozkotasuna!
Tira, tira, tira! Tira, bada!
Ez dakit barrurantz existitzen naizela. Bira egiten
dut, bueltak ematen ditut, makinizatu egiten naiz.
Gakoz eusten naute tren guztietan.
Kai guztietan altxatzen naute.

Ontzi guztietako helizeen barruan bueltaka ari naiz.
Tira! Gora! Tira!
Tira! Bero mekanikoa eta elektrizitatea naiz!

Tira! Eta errailak eta makinaren etxeak eta Europa!
Tira eta gora nigatik dena eta denetan, lanean ari
zaretzen makinok, tira!
Oroz gainetik ororekin salto egitea! Gora!

Gora, gora, gora, gora!
Tira! Kaixo! Uuuu!
Z-z-z-z-z-z-z-z-z-z-z!

A, ez izatea ni mundu guztia eta leku guztiak!

Londres¹

¹ Pessoa ez zen inoiz Londresen izan.

ITSASOKO ODA

Bakarrik, kai inorgabea, udako goiz honetan,
barra aldera begiratzen dut, Zehaztugabearen aldera
begiratzen dut,

begiratzen dut eta lehorrerutzen ari den
pakebote txiki, beltz eta argia ikusteaz pozten naiz.
Oso urrutitik dator —gardena, klasikoa bere
erara—.

Aire urrunean, atzean, bere kearen orla lausoa
uzten du.

Sartzen ari da, eta goiza berarekin batera sartzen
da, eta ibaian,

han-hemen, itsasoko bizitza esnatzen da,
belak jasotzen dira, atoi-untzi batzuek aurrera
egiten dute,

portuan dauden itsasuntzien atzetik untzi txikiak
sortzen dira.

Haize gozo, lauso bat dabil.

Baina nire arima gutxien ikusten dudanarekin dago,
lehorrerutzen ari den pakebotearekin,
zeren bera baitago Distantziarekin, goizarekin,
Ordu honek duen itsas zentzuarekin,
oka moduan nigan igotzen den eztitasun
mingarriarekin,

zorabio-hasiera moduan, baina izpirituan.

Pakeboteari begiratzen diot urrutitik, arima-
independentzia handiz,
eta nire baitan bolante bat biratzen hasten da,
poliki-poliki.

Barran goiz sartzen diren pakeboteek

berekin dakarkiete nire begiei
badorrenaren eta badoanaren misterio alai eta
tristea.

Urrutiko portuetako eta beste une batzuetako
oroitzapenak dakartzate,
gizateria bereko beste tankera batenak beste leku
batzuetan.

Atrakatze oro, untzien itsasoratze oro,
dira —nigan sentitzen ditut nire odolean bezala—
inkontzienteki sinbolikoak, izugarri
mehatxukorrak (noizbait izan naizena
asaldatzen duten esangura metafisikoak tartean...).

A, kai osoa harrizko nostalgia bat da!
Eta untzia kaitik abiatzen denean
eta kaiaren eta unziaren artean
espazio bat ireki dela bat-batean ohartzen
naizenean,
nitaz jabetzen da, ez dakit zergatik, larritasun berri
bat,
nire larritasun bustietako eguzkitan dirdirutzen
duen
laino bat sentimendu tristez egina
goizaldeak deitzen duen lehen leihoaren parekoa,
eta misterioitsuki nirea litekeen
beste pertsonaje baten oroitzapen bezala inguratzen
zait.

A, nork jakin, nork jakin
behinola abiatu ez ote nintzen, ni baino lehen,
kairen batetik; utzi ez ote nuen —egunsentiko
eguzki oblikuo azpiko untzia—,
beste kai antzeko zerbaite?

Nork jakin utzi ez ote nuen (kanpoko munduaren
ordua baino lehen
nire aurrean eguzkiargitzen ikusten dudan bezala),
jende gutxiz jositako kai handi bat,
erdi-esnaturiko hiri handi batekoa,
hiri komertzial, garrantzitsu, apopletiko ta handi
batekoa,
halako moldez non Espaziotik eta Denboratik
kanpokoia izan baitzitekeen?

Bai, kai batena, nolazbait materiala den kai batena,
egiazkoa, kai gisa ikusgarria, benetako kaia,
Kai Absolutua zeinaren modeluagatik —
inkontzienteki imitatuta;
sorgor gogoratuta—
eraikitzen baititugu guk gizonok
geure kaiak geure portuetan,
geure egungo harrizko kaiak egiazko uren gainean,
eraikitakoan beren buruak bat-batean igartzen
dituztenak
Egiazko-Gauzen antzean, Harrizko Entitate/Arimen
antzean,
gure zenbait momentutan (sentimendua eta erroa),
kanpoko munduan ate bat zabaltzen dela
dirudienean
eta, ezer aldatu gabe,
den-dena aldaturik agertzen zaigu.
A, Kai Handia nondik abiatu baikinena
Untzi/Nazioetan!
Aurreko Kai Handia, betierekoa eta jainkozkoa!
Zein portutakoa? Nongo uretan? Eta zergatik
pentsatzen dut horretaz?

Besteak bezalako Kai Handia, baina Bakarra.
Isilune xuxurlatiz josita haiek bezala egunsentietan,
eta goizetan loratuz altzamai-zaraten erdian
eta merkantzi tren heldu berrietan,
eta hodei beltz bat-bateko eta arinaren azpian
tximinetatik isuritako kea hurbileko lantegietan
dirdiratzen duten ikatz-puskatxo belzturiko lur
itzalez betea,
izango bailitzan ur goibelen gainetik pasatako
hodei baten itzala.

A, iristen gareneko goizaldeetako hozkirria,
eta abiatzen gareneko goizaldeetako zurbiltasuna,
gure erraiak kizkurtu egiten direnean
eta beldur antzeko sentsazio lauso batek
—zeina baita urruntzearen eta abiatzearen beldur
atabikoa,
Etorreraren eta Berritasunaren aurreko susmo
atabiko, misterioitsua—
larru-azala uzkurtzen diguna eta atsekabetzen
gaituena,
eta larriturik daukagun gorputz osoan sentitzen
dugu,
geronen arima bailitzan,
gauza bera beste modu batez sentitu ahal izateko
desira adierazgaitza:
zerbaitekiko malenkonia,
aberri lausoren batetiko jarrera-multzo asaldataua?
nongo kostaldearekikoa? nongo utziarekiko, nongo
kairekikoa?
pentsamendua gaixotzen diguna,

eta hustasun handi bat baino ez da gure barruan
geratzen,
itsas-minutuekiko asetasun hutsa,
eta larritasun lauso bat (asperra edo mina izango
zena,
hori izaten jakingo balu...).

Udako goiza, hala ere, apur bat freskoa da.
Gaueko logure arina oraindik ere badabil giro
asaldatuan zehar.
Nigan dagoen bolantea zertxobait azkartzen da.
Eta pakebotea lehorreratzen ari da, zeren ezbairik
gabea baita lehorreratuko dela,
eta ez neuk hura mugitzen ikusten dudalako bere
distantzia gehiegizko horretan.

Nire irudimenean, hurbil dago eta ikusgarria da
bere idibegi guztietako lerroen hedadura osoan
eta nigan oro da dardara, haragia eta larru-azala,
untziratuta sekula heltzen ez den kreatura horren
erruz
eta ni gaur itxarotera etorri naiz kaira, agindu
zeihar bati jarraituz.

Barran sartzen diren untziak,
portuetatik abiatzen diren untziak,
urruti pasatzen diren untziak
(hondartza mortu batetik horien begira ni, antza)—
untzi horiek guztiak ia-ia abstraktuak bere
abialdian,
untzi-mota horiek guztiok hunkitu egiten naute
bestelakorik izango bailiran

eta ez soilik untxiak, joan-ta-etorrian ari diren
untxiak.

Eta hurbiletik ikusitako untxiak, horietara igotzeko
asmorik ez izan arren,
azpitik ikusita, txalupetatik, txapazko murrut altuak,
barruan ikusita, konpartimenduetan zehar,
aretoetatik, despentsetatik,
mastei hurbiletik begira, han goian zorrozuta,
sokekin marraska, maila deserosoetatik behera,
usaindurik horren guztiorren nahasketa koipetsu,
metalezko eta itsasokoa—
untxiak hurbiletik ikusita beste gauza bat eta gauza
bera dira,
betiko nostalgia eta betiko urduritasuna eragiten
dituzte beste era batez.

Itsas bizitza osoa, itsas bizitzan den-dena!
Nire odolari dei egiten dio intsinuazio gozo
guztiorrek
eta zehazgabetasun handiz gogoeta egiten dut nire
bidaiei buruz.
A, urrutiko kostaldeen profilak, zeruertzean
xaflatuta!
A, lurmuturrak, uharteak, hondartza hareatsuak!
Itsasoko bakarlekuak, Ozeano Bareko hainbat
momentutan bezala
eskolan ikusitako ez dakit zein iradokizunen
bitartez
zainetan grabitatzen sentitu daiteke egintza hauxe:
ozeanoetan dela handiena

eta mundua eta gauzen zaporea basamortu
bihurtzen direla gudan!
Hedaturarik gizatiarrena, zipriztinik gehien
dituena, Atlantikoa!
Indiar Ozeanoa, ozeano guztietan misteriotsuena!
Mediterranioa, eztitsua, misteriorik gabea, klasikoa,
zabaldegien aurka apurtzeko itsasoa estatua zurien
begiraden aurrean hurbileko lorategietatik!
Itsaso guztiak, itsasarte guztiak, badia guztiak,
golko guztiak
estutu nahi nituzke nire bularraren aurka, ongi
sentitu eta hil arte!

Eta zuek, o untzigintzako gauzok, ametsetako nire
jolasgailu zaharrok!
Konposa ezazue nire barne-bizitzatik kanpo!
Gilak, mastak eta belak, lemako gurpilak, sokak,
lurrin-tximinak, helizeak, gabiak, banderatxoak
eror zaitezte multzoka nire baitatik, multzoka,
lurrean hustutako kaxoi higigarri baten eduki
nahaspilatuaren antzera!
Izan zaitezte zuek nire gutizia sukartiaren altxorra,
izan zaitezte zuek nire irudimeneko zuhaitzaren
fruituak,
nire kantuen gaia, nire adimeneko zainetan darion
odola,
izan bedi zuena estetikaren bidez kanpokoarekin
lotzen nauen soka,
emaizkidazue metaforak, irudiak, literatura,
zeren benetako errealitatean, zinez, hitzez hitz,
nire sentsazioak dira gila agerian dituen untzia,
nire irudimena erdi urperaturiko aingura,

nire antsia arraun puskatua,
eta nire nerbioen testura hondartzan lehortzen
jarritako sarea!
Ibaiaren akasoan txilibitu bat entzuten da, bakar
bat.
Nire psikismoaren lur osoa dardarka hasten da.
Niren barruan dagoen bolantea gero eta azkarrago
doa.

A, pakeboteak, bidaiak, Urlia zelan
dabilen-ez-jakitea, ederki ezagutzen dugu-eta!
A, gurekin maiz ibilitako gizona
Ozeano Bareko irla baten ondoan hil dela jakiteko
loria!
Guk, harekin ibili ginenok, haren berri emango
diogu mundu guztiari.
Legezko harrotasunez, konfiantza ikustezinez!
honek guztionek zentzu ederrago eta zabalagoa
baitu
zihoan untzia galdu eta biriketean ura sartu izanak
baino!
A, pakeboteak, ikatz-untziak, belauntziak!
Gero eta urriagotzen doaz —ai ene!— belauntziak
itsasoetan!
Eta niri, egungo zibilizazioa maite dudalarik, niri,
makinei arimarekin musu egiten diedalarik,
niri, injineruari, niri zibilizatuari, niri atzerrian
hezitakoari,
gustatuko litzaidake belauntziak eta zurez egindako
untziak bakar-bakarrrik izatea berriro nire begien
aurrean,

ez jakitea beste bizitzaz itsasoetako antigoaleko
bizitzaz baizik!

Zeren itsaso zaharrak baitira Erabateko Distantzia,
Urruntasun Hutsa, Gaurkotasuneko pisuaz aske...

Eta a, zenbat gogoratzen didan denak hemen
orduko bizitza hobea,
itsaso haiek, zabalagoak, motelago nabigatu
beharra zegoelako.

Itsaso haiek, misteriotsuak, haiez gutxiago jakiten
genuelako.

Bapore-untzi oro urrutitik belauntzi hurbila da.

Urrutiko untzi oro orain ikusita iraganeko untzia da
hurbiletik ikusita.

Zeruertzean dauden untzietako marinel ikustezin
guztiak

dira untzi zaharren denboretako marinel
ikustezinak,

garai moteletako eta beleroetako nabigazio
arriskuetaoak,

hilabeteak zirauten bidaietako zuren eta oihalen
garaietakoak.

Poliki-poliki, itsasoko gauzekiko eldarnioa jabetzen
da nitaz,

kaia eta bertoko giroa fisikoki zeharkatzen
dizkidate,

Tajoko mareta nire zentzuen gainetik egiten du
salto,

eta ametsetan hasten naiz, uretako ametsarekin
urtzen hasten naiz,

nire arimako transmisio-uhalak ongi funtzionatzen
hasten dira

eta bolantearen azelerazioak argi eta garbi astintzen
nau.

Urek deitzen naute,
itsasoek deitzen naute.

Gorputza duen ahotsa jasoz deitu egiten naute
urruntasunek,
iraganean sentitutako itsas garai guztiek, niri deika.

Zu, marinel ingeles hori, Jim Barns, ene adiskide,
zeu izan zinen

irakatsi zidana aintzinako oihu ingeles hura,
nirea bezalako arima konplexuentzat
hainbesteko pozoinaz laburbiltzen duena
itsasoko gauza guztien ahots ezezagun eta
inplizitua,

naufraegoena, urrutiko bidaiena, itsas ibilaldi
arriskutsuena,

zure oihu ingles hori, nire odolean unibertsal
bilakatua,

oihu-itxurarik gabea, giza-itxurarik ez ahotsik
gabea.

Oihu izugarri hori haitzulo batetik durunditzea
ematen duena

zerua ganga bailitzan eta gauza siniestro guztiak
urruntasunean, Itsasoan, Gauez gerta
daitezkeenak... kontatzea ematen duena.

(Itxura egiten zenuen beti: goleta bati
deika ari zinela, ahoaren albo banatan esku bat
jarrita,

zure eskutzar gogortuez eta ilunez bozgoragailu bat
eginez:

Ahó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-yyy!...
Schooner² ahó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-yyy!...)

Hemendik entzuten dizut, orain, eta zerbaiten
aurrean esnatzen naiz.
Haizeak zirgite egiten du. Goiza gorantz doa. Beroa
zabaltzen da.
Nire masailak gorritzen sumatzen ditut.
Nire begi kontzienteak dilatatu egiten dira.
Nire estasiak berotzen da, biziagotzen da, aurrera
egiten du,
eta matxinada-zarata itsuaz areagotzen da
bolantearen bira.

O dei eztsua
zure berotan, zure txinpartetan nigan irakitzen
diren,
—batasun lehegarrian— nire antsia guztiak,
dinamiko bilakatutako neronen aspergarritasunak,
denak!
Deia, nire odolari zuzenduta,
maitasun desagertu batena —ez dakit non—,
itzultzen dena
eta artean indarririk duena ni erakartzeko eta
nigandik tiratzeko,
artean indarririk duena bizitza hau niri
gorrotarazteko
(bizi naizeneko egiazko jendearen zeharkaezintasun
fisikoaren eta psikikoaren artean igarotzen dudana
nire bizitza hau!)
A, nola edo hala, handik edo hemendik, abiatzea!

² Schooner hitzak “goleta” esan nahi du ingelesez.

Alde egitea hortik, olatuetatik, arriskutik, itsasotik,
Urruntasunerantz joatea, Kanporantz joatea, Luze-
Labur Abstrakturantz,
amaigabe, gau misteriotsu eta sakonetan zehar,
hauts bainintzan eramana, haizea lagun, enbatak
lagun!

Joatea, joatea, joatea, joatea betiko!
Nire odol osoa amorraturik olatuengatik!
Nire gorputz osoa aurrerantz jaurkitzen da!
Irudimenarekin jauzi egiten dut barra-barra!
Atropeilatu egiten naiz, orro egiten dut, amildu...!
Nire antsiak aparturik lehertzen dira
eta nire haragia labarren aurka jotzen duen olatua
da!

Honi buruz gogoetan —o amorrua!—, honi buruz
gogoetan —o amorru bizia!—,
antsiaz beteriko nire bizitza honetako estuasun honi
buruz gogoetan,
ustekabean, dardarizoz, neurritz gaindi,
nire irudimenak duen bolantearen
kulunka deskonpasatu, itzel, bortxakorrarekin,
nigan lehertu egiten da, txilibitua joz, txistu eginez,
zorabioak eraginez,
itsasoko bizimoduaren karraskari ateratzen zaion
jelosia itzal eta sadikoa.

E, marinelok, gabizainok! E tripulatzaileok,
pilotuok!
nabigatzaileok, mareatzaileok, marinelok,
abenturazaleok!
E untziko kapitainok! Lema- eta masta-gizonok!

Lur zakarretan lo egiten duzuen gizonok!
Idibegietatik zelatatzen zaituzten Arriskuarekin lo
egiten duzuen gizonok!
Heriotza burkotzat jarrita lo egiten duzuen gizonok!
Untzi-bizkarrak, untzi-zubiak dituzuen gizonok,
bertotik begiratzeko
itsaso itzelaren itzeltasun itzelari!
E zamako altzamaien operatzaileok!
E bela-jasotzaileok, suginok, untziko morroiok!
Sotoetan zama sartzen duzuen gizonok!
Untziko gainaldean sokak biribilkatzen dituzuen
gizonok!
Eskotilen metala garbitzen duzuen gizonok!
Lemazainok! Makinalariok!

Masta-gizonok!

E-e-e-e-e-e!

Txapel biseradun jendea! Elastikodun jendea!
Bularrean brodaturiko ainguradun eta bandera
gurutzadun jendea!
Tatuaturiko jendea! katxinbadun jendea! amuradun
jendea!
Jende belztua hainbeste eguzkiz, errea hainbeste
euriz,
begiz garbia hainbeste handitasunez haien aurrean,
aurpegiz ausarta hainbeste haizek astindu
baitzaituzte zinez!

E-e-e-e-e-e!

Patagonia ikusi duzuen gizonok!
Australiatik igaro duzuen gizonok!
Inoiz ikusiko ez ditudan kostaldez begirada bete
duzuenok!

Inoiz zapalduko ez ditudan lurretan lehorreratu
zaretenok!
Salerosgai trauskilak erosi dituzuenok basamortuen
brankan!
Eta hori guztiori egin duzue garrantzirik izango ez
balu bezala,
naturala izango balitz bezala,
bizitza halakoxea izango balitz bezala,
patu bat betetzen arituko ez bazinate bezala!
E-e-e-e-e-e!
Gaur egungo itsas gizonok! Iraganeko itsas
gizonok!
Untziko komisariok! Galeretako esklabuok!
Lepantoko borrokalariok!
Erroma garaiko itsas lapurrok! Greziako
nabigatzaileok!
Feniziarrok! kartagoarrok! Sagres-etik
zehaztugabeko abenturara, Erabateko Itsasora
jaurkitako portugaldarrok, Ezinezkoa burutzeko!
E-e-e-e-e-e-e-e!
Padroiak landatu zenituzten gizonok, lurmuturrei
izena eman zenietenok!
Beltzein lehendabiziko aldiz negoziotan aritu
zineten gizonok!
Lur berrietako esklabuak lehenik saldu
zenituztenok!
Emakume beltz harrituei lehendabiziko espasmoak
eskaini zenizkietenok!
Urrea, beira-aleak, zur lurrintsuak, geziak ekarri
zenituztenok
landaredi horlegiz lehertzen ziren aldapa-
pikoetatik!

Afrikako herrisketan lasai dena lapurtu zenuten
gizonok,
kanoien eztrandaz hango arrazei ihes eragin
zenietenok!
Hil, lapurtu, torturatu egin duzuenok, Berritasunari
Sariak
irabazi zenutenok, itsaso berrien misterioari buru-
makur erasotzen diotenenak! E-e-e-e-e!
Zuei guztioi bakarrean, zuei guztioi zuengan
guztiongan bakarrean bezala,
zuei guztioi nahaspilaturik, elkargurutzaturik,
zuei guztioi, ankerrok, gorrotatuok, ikaragarriok,
sakratuok,
diosal dagizuet, diosal dagizuet, diosal dagizuet!
E-e-e-e-e! E-e-e-e-e-e! E-e-e-e-e-e!
E-lahó-lahó-laHó-lahá-á-á-á-á!

Zuekin joan nahi dut, zuekin joan nahi dut,
aldi berean zuekin guztiokin
joan zareten leku guztietara!
Zuen arriskuak aurkitu nahi ditut aurrez aurre,
nire aurpegian sentitzea zuenak zimurtu dituzten
haizeak,
nire ezpainenatik txistu moduan botatzea zuen
ezpainek musukatu duten itsasoetako gatza,
zuen untziko zerbitzuan besoak izatea, zuen
ekaitzetan parte hartzea,
zuekin iristea, azken batean, portu miresgarrietara!
Zuekin zibilizazioari ihes egitea!
Zuekin moralaren nozioa galtzea!
Nire gizatartasuna Urruntasunean eraldatzen
sentitzea!

Hegoko itsasoetan zuekin edatea
basakeria berrietatik, arimaren nahasketa
berrietatik,
nire izpiritu sumenditsuan dauden erdiko su
berrietatik!
Zuekin joatea, eranztea —a, ken hortik!—
nire janzki zibilizatua, nire ekintza melengak,
kartzelei senez diedan beldurra,
nire bizitza baketsua,
nire bizitza eseria, estatikoa, antolatua eta
ikuskatua!

Itsasoan, itsasoan, itsasoan, itsasoan,
e, itsasoan, haizean, olatuetan, arriskuan jarri
nire bizitza!
Bidaia handiekiko nire dastamena
haizeek nahaspilatutako aparrez gatzatzea.
Nire abenturaren haragiak urezko zartailukadaz
zigortzea,
nire existentziako hezurak hotz ozeanikoz
bustitzea,
zigortzea, ebatzea, haizez aparrez eguzkiz hingatzea
nire izaki zikloniko eta atlantikoa,
sokateria gisa paraturiko nire nerbioak,
haizeen eskuetan jarritako lira!
Bai, bai, bai... Gurutzilka nazazue nabigazioetan
eta nire bizkarraldeak nire gurutzeaz gozatuko dira!
Lotu nazazue bidaiei posteei bezala
eta posteen sentsazioa nire bizkarrezurrean sartuko
da
eta hura sentitzera iritsiko naiz espasmo zabal eta
pasiboa bailtzan!

Egizue nitaz nahi duzuen, baldin-eta beti bada
itsasoetan,
untzi-bizkarretan, olatuen soinura,
urratu, hil, zaurituko nauzuen lekuan!
Nahi dudana da Heriotzari
itsasoz gainezkako arima bat eramatea,
horditurik itsas gauzetatik erortzerainokoan,
hala itsas gizonena nola aingurena, lurmuturrena,
hala urrutiko kostaldeena nola haizeen zaratarena,
hala Kaiaren Urruntasunarena nola naufragioena
nola merkataritza baketsuena,
hala mastena nola olatuena,
Heriotzari minez, plazerrez, izainez beteriko
edontzi bat eramatea (zurga ta zurga denak),
itsasoko izain bitxi, horlegi, absurduz beteriko bat!

Egin itzazue sokateriak nire zainekin!
Amarrak nire giharrekin!
Larru nazazue, iltza nazazue giletan!
Eta iltzeen mina sentitu ahal dezadan eta sentitzeari
sekula utzi ezin diezaiodan!
Egizue nire bihotzaz almirante-banderatxo bat
untzi zaharren arteko gerra-trantzean!
Zapal itzazue konbesetan nire begi erauziak!
Apur iezaizkidazue hezurak amulen aurka!
Jo nazazue zartailuz mastei lotuta, jo nazazue
zartailuz!
Latitude eta longitude guztietako haizeetara
isur ezazue nire odola untzia —toldila, alborik
albo— zeharkatzen duten
ur nahasien gainean, ekaitzen konbultsio bizietan!

Haizetan belen oihalen ausartasuna izatea!
 Gabia altuen antzera, haizeen txistua izatea!
 Arriskuz jositako itsasoetako Fadoaren kitarra
 zaharra,
 nabigatzaileek entzun dezaten eta errepika ez
 dezaten kanta!
 Matxinatutako marinelek
 kapitaina urkatu zuten belazurrin batean.
 Beste bat lehorreratu zuten uharte mortu batean.
*Marooned!*³
 Tropikoetako eguzkiak pirateria zaharraren sukarra
 helarazi zien
 nire zain grinatsuei.
 Patagoniako haizeek nire irudimena tatuatu zuten
 irudi tragiko eta lizunez.
 Sua, sua, sua, nire baitan!
 Odola! odola! odola! odola!
 Nire burmuin osoak eztanda egiten du.
 Mundua gorriz partitzen zait.
 Zainak lehertzen dira amarra-zarata ateraz!
 Eta Itsas Lapur Handiaren kanta
 nigan lehertzen da anker, suntsikor,
 Itsas Lapur Handiaren kanta orroaka kantatzen
 bere gizonen bizkarrezurretatik beldurra jaitsiarazi
 arte,
 han popan hil zorian, eta orroaka, kantatzen:

*Fifteen men on the Dead Man's Chest.
 Yo-ho ho and a bottle of rum!*⁴

³ “Lagata” esan nahi duen ingeles hitza.

⁴ Hamabost gizon Hildakoaren Hilkutxaren gainean. / Yu-hu-hu eta botila bat ron!

Eta segituan oihukatuz, jada irreala zen ahotsaz,
airea lehertuta:

Darby M'Graw-aw-aw-aw-aw!
Darby M'Graw-aw-aw-aw-aw-aw-aw-aw!
*Fetch a-a-aft the ruu-u-u-u-u-u-u-u-u-u, Darby!*⁵

Ea, hura bizimodua, hura! Hura bai bizimodua, ea!
E-e-e-e-e-e-e!
E-lahó-lahó-laHó-lahá-á-á-á-á!
E-e-e-e-e-e-e!

Erdibituriko gilak, hondoraturiko itsasuntziak,
odola itsasoetan,
odolez beteriko konbeseak, gorputz-puskak!
Mozturiko hatzak amuletan!
Ume-buruak, han, hemen!
Begiak erauzita dauzkan jendea, oihuka, uluka!
E-e-e-e-e-e-e-e-e-e!
E-e-e-e-e-e-e-e-e-e!
Honetan guztionetan biltzen naiz geruza batean
bezala, hotzean!
Honetan guztionetan igurtzitzen naiz altan dagoen
katemea bezala hormaren aurka!
Honi guztioni orro egiten diot goseak akabatzen
dagoen lehoiaren antzera!
Honen guztionen aurka oldartzen naiz zezen
haserrearen antzera!

⁵ Darby M'Graw! Darby M'Graw! Ekarzak rona txopara,
Darby!

Azkazalak sartzen ditut, erpeak apurtzen ditut,
hortzetatik odola darit honen guzti honen gainean!
E-e-e-e-e-e-e-e-e!

Bat-batean nire belarrietan lehertzen da,
nire ondoko turuta bailitzan,
oihu zaharra, oraingoan haserre, metalezkoa baina,
atzemandako harrapakinari deika,
indarrez hartu-beharreko goleta:

Ahó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-yyy!...
Schonner ahó- ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-yyy!...

Mundu osoa ez da existitzen niretzat! Ardo gorria!
Abordatze amorratuan orroaka ari naiz!
Pirata nagusia! Caesar-pirata!
Lapurtzen dut, hiltzen dut, zatikatzen dut,
erdibitzen dut!
Itsasoa, harrapakina, lapurreta baino ez dut
sentitzen!
Lokietako zainak nire baitan taupaka, nire burua
taupaka
baino ez dut sentitzen!
Nire hunkipenak odol beroa isurtzen du nire
begietatik!
E-e-e-e-e-e-e-e-e-e!

A, piratak, piratak, piratak!
Pirata horiek, maita eta gorrota nazazue!
Nahas nazazue zuekin, pirata horiek!

Zuen amorruek, zuen ankerkeriak nola hitz egiten
dioten
garai batean nirea izandako emakume-gorputz
baten odolari,
zeinaren jelosiak oraindik bizirik dirauen!

Gustatuko litzaidake zuen keinu guztien animalia
esanguratsuren bat izatea,
hortzak amuretan, giletan sar litzakeen animalia
baten,
mastak jan litzakeena, konbesetan odola eta bikea
edan litzakeena,
belak, arraunak, kordak eta poleak zurrupa
litzakeena,
krimenekin grinatzen den itsas suge eme eta
izugarria!

Eta badago sentsazio bateraezin eta analogoz
osaturiko sinfonia bat,
badago nire odolean nahasketa kriminalez
osaturiko orkestrazio bat,
odolezko orgien zalaparta espasmodikoak
itsasoetan,
amorraturik, bero-ekaitza bezalakoa izpirituan,
nire zentzua lausotzen duen hauts berozko hodeia
azalarekin eta zainekin bakarrik hau guztiau
ikustarazi eta amestrazten didana!
Piratak, itsas lapurrak, untziak, ordua,
itsasoko ordu hori non biktimak larrugorrituak
diren,
eta harrapatuen ikarak zorotasunera egiten duen
ihes —ordu hura

bere guztizkoarekin: krimenak, izua, untziak,
jendea, itsasoa, zerua, hodeiak,
haize leuna, latitudea, longitudea, iskanbila,
gustatuko litzaidake bere Orotasunean nire
gorputza bere Orotasunean izatea —sufritzen—,
nire gorputza eta nire odola izatea, ni naizena
gorriz konposatzea,
nire arimaren haragi gezurrezkoan hazkurea
eragingo lukeen zaurian bezala loratzea!

A, krimenetan den-dena izatea! Untzi-abordajeen,
sarraskien eta bortxaketen elementu guztiak izatea!
Harrapaketen lekuan izan nintzen guztia izatea!
Odolezko tragedien lokalean bizi edo izan zen
guztia izatea!
Gorengo pirateriaren pirata-laburpena izatea, eta
biktima-sintesia ere bai, baina haragi eta
hezurrezkoa, munduko pirata guztiena!

Nire gorputz pasiboa izatea; piratek bortxatu, hil,
zauritu, urratutako emakumea/emakume guztiak
izatea!
Nire izaki menperatuan haiena izan behar duen
emea izatea!
Eta hau guztiau sentitzea —gauza hauek guztiak
aldi berean— nire bizkarrezurrean zehar!
O abenturaren eta krimenaren nire heroia iletsu eta
zakarrak!
Nire itsas basapiztiak, nire irudimenaren senar!
Nire sentsazioei dagokien oblikuotasunaren noiz-
behinkako maitaleak!

Gustatuko litzaidake kaietan zuen zain egongo zen
hura izatea, zuen zain, ametsetan beren pirata-
odolagatik gorrotatuak maitatuak!

Zeren bera zuekin gozatuko bailitzateke, baina
izpirituz bakarrik, haserre bizian
itsasoan eragiten dituzuen biktimen gorpu biluzien
ganean!

Zeren berak bat egingo bailuke zuen krimenarekin,
eta ozeanoetako orgian

haren sorgin-izpiritua dantzan arituko litzateke
ikustezin zuen gorputzen keinuen inguruan, zuen
haiztoen inguruan, zuen esku itotzaileen inguruan!
Eta bera lehorrean, zuen zain, zuek noiz etorriko,
etorriko bazineten,

edatera joango litzateke zuen maitasunaren
orroetan zuen garaipen guztien
lurrin zabal, nebuloso eta siniestro osoa,
eta zuen espasmoen bitartez sabat bat txistukatuko
luke gorriz eta horiz!

Ebakitako haragia, irekitako eta lehertutako
haragia, odola isurika!

Orain, zuek egiten duzuenaren gorakada zehatza
amestuz,
zeharo galtzen naiz nigan, jada ez naiz zuena, zuek
guztiok naiz,
laguntzen didan emetasuna zuen arimak izatean
datza!

Zuen basatasunaren barrutik egotea, horretan ari
zinetenean!

Zuen sentrazioen kontzientzia barrutik zurgatzea,
itsaso zabalak odoltzat zenituztenean,

noizean behin marrazoei oraindik bizirik zeuden
zaurituen gorputzak botatzen zenizkietenean,
umeen haragi arrosakara,
eta amak amuletara eramaten zenituzten zer
gertatzen zitzaien ikus zezaten!
Sarraskian, lapurretan zuekin egotea!
Lapurreten sinfonian zuekin orkestratuta egotea!
A, ez dakit zer, ez dakit zenbat gustatuko
litzaidakeen zuetakoa izatea!
Ez litzateke soilik emea izatea zuentzat, hainbat
eme izatea, hainbat biktima izatea zuentzat —
gizonak, emakumeak, haurrak, untziak—,
ez litzateke soilik ordua eta untziak eta olatuak
izatea,
ez litzateke soilik zuen arimak, zuen gorputzak,
zuen haserre bizia, zuen jabetza izatea,
ez litzateke soilik zuen orgia-ekintza abstraktua
zehazki izatea,
ez litzateke soilik hori izatea gustatuko
litzaidakeena: hori baino gehiago izango litzateke:
Jainkoa-hau-guztiau litzateke!
Beharrezkoa izango litzateke Jainkoa izatea,
aurkariarenganako gurtzaren Jainkoa,
Jainko izugarri eta sataniko bat, panteismo
odoltsuren bateko Jainkoa,
nire irudizko haserre biziaren neurri osoa bete ahal
izateko,
nire nortasun-desirak sekula berriro ez lehortzeko
bakoitzarekin, eta guztiarekin, eta zuen garaipenen
guztia-baino-gehiagoarekin!

A, tortura nazazue ni sendatzeko!

Nire haragia: egizue hartaz zuen haiztoek
zeharkatzen duten airea
gure buru eta leposoinetan iltzatu baino lehen!
Izan bitez nire zainak haiztoek zeharkatzen dituzten
arropak!
Nire irudimena bortxatzen dituzuen emakumeen
gorputza!
Nire adimena zutik hiltzean jarduten duzuen
konbesa!
Nire bizitza osoa, nire konplexu nerbiosoan,
histerikoan, absurduan,
organismo handia zeinaren buruturiko pirateria-
ekintza bakoitza
izango bailitzateke zelula kontziente bat —eta nire
ni osoa zurrunbilatuko bailitzateke
usteltasun itzel baten antzera, haizetara, eta hura
guztia izango bainintzateke!
Halako abiadura neurrigabearekin, izugarriarekin,
nire ikuspen gainezkakoen makina sukartia
biraka ari da orain nire kontzientzia, hegaldaka,
airean txistuka ari den zirkulu nebulosoa besterik
ez denean.

Fifteen men on the Dead Man's Chest.
Yo-ho-ho and a bottle of rum!

E-lahó-lahó-laHÓ-lahá-á-áá-ááá...!
A, basatasun honen basatasuna! Pikotara
gurea bezalako bizitza oro, honetarik ezer ez dena!
Horra ni, injinerua, praktikoa ezinbestez, denetan
sentikorra, horra ni geldi, zuekin alderatuta, baita
nabilenean ere;

baita jarduten dudanean ere, geldo; baina
nagusitzen naizenean ere, ahul;
geldi, garaitua, zuen Loriaren disidente kobardea,
zuen dinamika iskanbilatsu, bero eta odoltsuarena!

Arre, nire eldarnioaren arabera jokatzeko gai ez
izateagatik!

Arre, zibilizazioaren azpigonei helduta beti
ibiltzeagatik!

Soinean hainbeste *douceur des moeurs*
eramateagatik, farfail-zamaren antzera!

Gaurko humanitarismoaren morroiak —denok
horixe gara—!

Tisikoen, neurastenikoen, linfatikoen txundidurak,
indarkeriaz eta ausartasunez norbait izateko

kemenik gabe,

hankatik heldutako oiloaren pareko arimarekin!

A, piratak! Piratak!

Ez-legezkoaren irrikia basakeriari lotuta,
erabat ankerrak eta higuingarriak diren gauzekiko

irrika,

gure gorputz mengelak,

gure eme gorputz delikatuak arreta abstraktuaz

karraskatzen dituen

eta gure begirada hutsetan sukar handi eta zoroak

jartzen dituen!

Behar nazazue zuen aurrean belaunikatzera!

Umilia nazazue eta kolpa nazazue!

Egizue nitaz zuen esklabua eta zuen objektua!

Eta didazuen mesprezuak ez nazan inoiz laga,

o ene jabeok, o ene jabeok!

Beti lorioski menperatuaren zeregina betetzea
odol-gertakarietan eta sentsualitate umiliagarrietan!
Eror zaitezte nire gainean, murrutzar pisudun
antzera,
o itsaso zaharreko barbarook!
Emaidazue oinaze eta zauri nazazue!
Nire gorputz ekialdetik mendebaldera
marka ezazue odolaz nire gorputza!
Musuka ezazue untziko haiztoekin eta zartailuekin
eta amorruz
zuen izateak eragiten didan haragizko izu hau,
zuen suminduraren besoetan erortzeko nire antsia
masokista hau,
zuen ankerkeria orojalearen gauza inerte eta
sentikorra izateko,
menperatzaileok, nagusiok, enperadoreok, zaldiok!
A, tortura nazazue,
emaidazue oinaze eta ireki nazazue!
Puska kontzienteetan deseginda,
barreia nazazue konbesen gainean,
sakabana nazazue itsasoetan zehar, utz nazazue
uharteetako hondartza gosetietan.

Gizen ezazue nigan zuekiko dudan nire mistizismo
osoa!
Zinzela ezazue odolez nire arima!
Ebaki ezazue, marka ezazue!
O nire irudimen gorpuztunaren tatuatzaileok!
Larrutzaile maiteok nire haragizko sumisioagatik!
Azpira nazazue txakur bat ostikoka hiltzen
duenaren antzera!
Egizue nitaz zuen jabetza-mesprezuaren putzua!

Egizue nitaz zuen biktima guztiak!
 Kristok gizon guztiengatik sufritu zuen bezala,
 halaxe ere nahi dut nik sufritu zuen biktima
 guztiengatik zuen eskuetan,
 zuen esku babatuetan, odoleztatuetan eta hatz
 ebakidunetan,
 amulei egindako aboardaje zakarren ondorio!
 Egizue nitaz arrastratua izatearen antzeko
 plazer bat —o plazerra, o musukaturiko mina!—
 zuen esku zigortutako zaldien isatsetik arrastratua
 bezala...
 Baina izan bedi itsasoan, izan bedi itsasoa-a-an,
 izan bedi I-TSASOA-A-AN!
 E-e-e-e-e! E-e-e-e-e-e-e! E-E-E-E-E-e! ITSASO-A-
 A-A-AN!

Ye-e-e-e-e-e! Ye-e-e-e-e-e! Ye-e-e-e-e-e-e-e!
 Oro oihuka ari da! Oro oihuka! Haizeak, olatuak,
 untziak,
 itsasoak, gabiak, piratak, nire arima, odola, eta
 airea, eta airea!
 E-e-e-e! Ye-e-e-e-e! Ye-e-e-e-e-e! Orok kantatzen
 du oihukatuz:

FIFTEEN MEN ON THE DEAD MAN'S CHEST.
 YO-HO-HO AND A BOTTLE OF RUM!

E-e-e-e-e-e-e! E-e-e-e-e! E-e-e-e-e-e!
 E-lahó-lahó-laHÓ-O-O-óó-lahá-á-ááá!

Ahó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-yyy!...
 Schooner ahó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-yyy!...

iristen da Urruntasunaren hondotik, Itsasoaren
hondotik, Leizeen Arimatik,
eta gainazalean, auken pareko, nire amets
zentzugabeak buiak dira...

Ah-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-yy!...
Schooner ahó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-yy!

A, nire kitzikaduraren ihintza!
Gaueko freskura nire barruko ozeanoan!
Hona hemen dena nire barruan bat-batean itsasoko
gau baten aurrean
gaueko olatuei darien misterio handi eta txit
humanoz beteta.
Ilargiak gora egiten du zeruertzean
eta nire haurtzaro zorionsua esnatzen da, malko
baten antzera, nigan.
Nire iragana birsortzen da, itsasoko oihu hori
lurrina, ahotsa, nire iraganari —berriro sekula
izango ez dudan zorionari— deika aritzera doan
kantaren baten oihartzuna bailitzan.
Etxe sosegatu zaharrearantz izan zen, ibai ondoan...
(Nire gelako leihoak, eta baita jangelakoak ere,
agertzen ziren, etxe baxu batzuen gainetik, ondoko
ibaira,
Tajo-ra, Tajo honetxera, baina beste leku batean,
haruntz behean...
Gaur leiho horietxetan jarriko banintz, ez
nintzateke leiho berberetan jarriko.
Garai hura iragan zen itsas zabaleko bapore bateko
kea bezala...)

Samurtasun adieraztezin bat,
bihotz-zimiko hunkigarri eta malkotsu bat,
antzinako pirata bilakatu nintzenean amestutako
biktima haiengatik guztiengatik —batez ere
umeengatik—,
hunkipen zirrarsua, ez baitziren benetakoak izan;
samurtasun nahasgarri batek —lausoturiko kristala
bezalako batek, urdinska batek—,
kanta zaharrak abesten ditu nire arima mindu
gizagaixo honetan.

A! Nola izan naiz halako gauzak amesteko gai
izan?
Zeinen urrun nagoen duela une batzuk izan naizen
pertonarengandik!
Sentsazioen histeria —nahiz hauek izan nahiz
aurkakoak izan!
Zutika ari den goizalde ilehorian, nola nire
belarriak bakarrik aukeratzen dituen hunkipen hau
ongarritzen duten gauzak —uren mareta,
kaiaren aurkako ibaiko uren mareta arina...,
ondotik igarotzen den bela ibaiz bestaldean,
urrutiko mendiak, japoniar urdinezkoak,
Almadako etxeak,
eta goizeko ordu horretan samurtasunetik eta
haurtzarotik geratzen dena!

Antxeta bat bere bidetik,
eta handiagoa da nire samurtasuna.
Baina denbora guzti honetan ez diot ezeri
erreparatu.

Hau guztiau larruazalaren inpresioa besterik ez da
izan, laztana bezalakoa,
ibai ondoko nire etxearena,
ibai ondoko nire haurtzaroarena,
gauetz ibaira agertzen diren nire gelako leihoena.
Eta uretan sakabanaturiko ilargiaren argiari darion
bakea!...,
Nire izeba zaharra, galdu zuen semearengatik maite
ninduena...,
nire izeba zaharrak abestuz lo eragiten zidan
(horretarako handiegia banintz ere)...
Gogoratzen dut, eta malkoak nire bihotzean
erortzen dira eta bizitzatik garbitzen dute,
eta itsasoko haize leun bat altxatzen da nire baitan.
Batzuetan “Catrineta Untzia” abesten zuen:

*Catrineta Untzia badoa
itsasoko urak zeharkatzen...*

Eta beste batzuetan, hain malenkoniatsu eta Erdi-
Arokoa zen melodiaz,
“Infanta Ederra” zen... Gogoratzen dut, eta ahots
zahar gaixoa altxatzen da nire baitan
eta gogoratzen dit zeinen gutxi gogoratu nintzen
berataz haren ondoren, eta hainbeste maite
ninduen!
Zeinen eskergabea izan nintzen berarekin! Eta zer
egin nuen nik nire bizitzaren amaieran?
“Infanta Ederra” zen... Nik begiak ixten nituen eta
hark abesten zuen:

Infanta Ederra zegoen

eserita loreetan ...

Begiak piska bat ireki eta ilargiz beteriko leihoa
ikusten nuen
eta, ondoren, begiak ostera ere ixten nituen, eta
horrekin guztiorrekin zorionsua nintzen.

Infanta Ederra zegoen
eserita loreetan
adatsa ari zen orrazten
urrez orrazia eskuan...

O nire haurtzaroko iragana, apurtu zaidan panpina!

Bidaiatu ezin izatea iraganera, etxe hartara eta
maitasun hartara,
eta han betiko gelditu, beti haur eta beti alai!

Baina hori guztiori iragana izan zen, kale zaharreko
izkinan faroltxo.

Horretan pentsatzeak hotza eragiten du, lortu ezin
den zerbaitekiko gosea eragiten du.

Horretan pentsatzeak ez dakit zein bihotz-zimiko
taiugabe eragiten didan.

O sentsazio aurkarien zurrumbilo motela!

Ariman nahaspilaturiko gauzen bertigo leuna!

Amorraldi apurtuak, hari-txirrikak bezalako
samurtasunak umeen jostagarri,
irudimenaren gainbehera handiak zentzumenen
begien gainean,
malkoak; alferrikako malkoak,

kontradikzio-haizetxo leunak aurpegitik arima
marruskatzen dutenak...

Gogora dakart, nahigabeko ahalegin baten bitartez,
nire burua hunkipen honetatik askatzeko,
gogora dakart, ahalegin desesperatu, lehor, ezdeus
baten bitartez,
Pirata Handiaren kanta, hiltzen ari zenekoan:

Fifteen men on the Dead Man's Chest.
Yo-ho-ho and a bottle of rum!

Baina abestia nire baitan gaizki trazatutako lerro
zuzena da...

Ahalegintzen naiz, eta berriro ere lortzen dut nire
arimaren begien aurrera deitzea,
berriro ere, baina ia literarioa den irudimen baten
bidez,
pirateriaren indarkeria, sarraskiarena, gosearena,
lapurreta dastatzen duenarena,
emakume eta umeen sarraski alferrikakoarena,
tortura fribolarena, eta soilik distraitzeko, bidaiari
pobreena
eta besteek gehien maite dituzten gauzak suntsitu
eta apurtzeko sentsualtasuna.
Baina hau guztiau amesten dut nire garondoan
arnasartzen duen zerbaiten beldurrez.

Bururatzen zait interesgarria izango litzatekeela
amak aurrean daudela seme-alabak urkatzea
(baina, nahigabe, horien amak sentitzen naiz),

lau urteko haurrak uharte inorgabeetan bizirik
lurperatzea
gurasoak txalupetan daramatzagularik dena ikus
dezaten
(baina zirgit egiten dut ez daukadan semeaz eta
etxean lasai-lasai lotan dagoenaz gogoratzean).

Itsasoko krimenen grina hotza akuilatzen dut,
Fedearen atxikiarik ez duen inkisizioarena,
gaiztakeriak eta amorraldiak adierazten ez duten
krimenak,
hotz-hotzean eginak, ez zauritzeagatik, ez kaltea
egiteagatik,
ezta dibertitzeagatik ere, baizik denbora
pasatzeagatik soilik,
jangela probintziano bateko mahaian bakar-jokotan
aritzen denaren antzera —zamaua mahaiaren beste
aldean jarrita, afaldu ostean,
soil-soilik krimen higuigarriak egitearen eta
garrantzirik ez ematearen plazer delikatuagatik,
erotu eta hil arteraino sufritzen ikusteagatik baina
hainbesteraino inoiz iritsi gabe...
Nire irudimenak, ordea, uko egiten dio nirekin
etortzeari.
Hotzikara batek zirgit eragiten dit.
Eta bat-batean, lehen baino ustekabeagoan,
urrutiagotik, hondoagotik,
bat-batean —o nire zain guztietako izu laborria!—
o Misterioaren aurrean nire baitan irekitako atearen
bat-bateko hotza eta aire-korronte bat sartzen utzi
duena,

Jainkoaz, bizitzan Transzendentala denaz oroitzen
naiz, eta bat-batean,
Jim Barns marinel ingelesaren ahots zaharra,
hizketa-lagun nuena,
samurtasun misteriotsuen ahotsa —nire baitan
birsortuta—,
ama-magaleko gauza txikiena eta arreba-ileko
begiztarena,
baina zoragarri etorria gauzen itxuraz
harantzagotikan,
ahots isil eta urruna —Ahots Absolutu, Ahorik
gabeko Ahots bilakatuta—,
itsasoetako gaueko bakardadearen gainetik eta
barnetik etorria,
niri deika, niri deika, niri deika...

Isilka-misilka dator, deuseztatua eta entzuteko
modukoa balitz bezala,
urruna, soinua beste leku batean balitz bezala eta
hemen entzungo ez balitz bezala,
itotzen den negar-zotina, itzaltzen den argia, arnasa
isila bailitzan,
espazioan inondik ere ez, denboran inon ere ez,
amaigabeko eta gaueko oihua, putz sakon eta
nahaspilatsua:

Ahó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-yyy!...

Ahó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-yyy!...

Schooner ahó- ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-ó-yyy!...

Gorputza zeharkatzen didan arimako hoztasunez
dardar egiten dut

eta bat-batean begiak irekiten ditut, itxita ez
neuzkanak.

A, zer-nolako poza behin-betiko ametsetatik
askatzearena!

Hona hemen egiazko mundua berriro ere,
nerbioentzat hain onuragarria dena!

Hara hor, hain goiz heltzen diren pakeboteak
sartzen diren goizeko ordu honetan.

Jada ez dit axolarik sartzen ari zen pakeboteak.

Oraindik urrun dago.

Soilik hurbil dagoenak garbitzen dit arima orain.

Nire irudimen higieniko, boteretsu, praktikoa
gauza moderno eta praktikoez baino ez da
arduratzen orain,

kargauntziez, pakeboteez eta bidaiariez,

berehalako gauza handi, moderno, komertzial eta
egiazkoez.

Bolanteak biraketa leuntzen du nire barruan.

Gaur egungo itsas bizimodu zoragarria,

oro garbitasuna, makinak eta osasuna!

Oro hain ongi antolatuta, hain berezkotasunez
doituta,

makinen pieza guztiak, itsaso guztiak itsaso
guztietan zehar,

esportazio eta inportazio-jarduera komertzialaren
elementu guztiak

hain zoragarri konbinatuta

ezen dena igarotzen baita lege naturalen arabera
bezala,

ezerk ezerekin estropezu egiten ez duela!

Poesiak ez du ezer galdu. Eta orain badira gainera
makinak,
beren poesiarekin ere bai, eta bizitza-mota
komertzial, mundutar, intelektual, sentimental
guztiak,
makinen garaiak arimei ekarritakoa.
Bidaiak orain lehen bezain ederrak dira
eta untzi bat beti izango da ederra soil-soilik untzia
delako.
Bidaiatzea artean bidaiatzea da eta Urruntasunak
dirau beti iraun zuen tokian—
inon ez, Jainkoari eskerrak!

Mota askotako baporez betetako portuak!
Txikiak, handiak, hainbat koloretakoak, hainbat
idibegi-modurekin,
hain deliziosoak diren untzi erakoak!
Portuetako baporeak, ainguratokien arteko
separazio mailakatuan hain indibidualak!
Itsasoz, oraindik homerikoa den itsaso zaharrea
zehar —o Ulises!— dabiltzan objektu komertzialen
tankera geldo, hain atsegin horrekin!
Itsasargien begirada humanitarioa gaueko
urruntasunean!
Edo ustekabeko itsasargi hurbila ezin beltzagoa den
gauaren erdian
("Lehorretik zeinen hurbil pasatzen ari ginen!") Eta
uren soinuak belarrira abesten digu!...

Hau guzti hau betidanik izan den bezalakoxea da,
baina merkataritza existitzen da;
eta bapore handien patu komertzialak

nire garaiaz harro sentitzera bultzatzen nau!
Bidaiari-untzietan doan jende-nahaspilak
harrotasun modernoa eragiten dit
arrazak nahastea hain erraza den garai batean
bizitzeagatik,
espazioak hain erraz lekualdatzeagatik, gauza
guztiak hain erraz ikusteagatik
eta amets-kopuru handi bat egia bihurtuz bizitzaz
gozatzeko aukera izateagatik.

Garbiak, puntualak, letoi horizko burdinesi-
guichet-ak dituen bulegoa bezain modernoak,
nire gaur egungo sentimenduak, naturalak eta
gentlemen-ak bezain neurritsuak,
praktikoak dira, eldarnioekin zerikusigabeak,
birrikak itsas haizez betetzen dituzte,
itsasoko haizea arnasartzea zeinen higienikoa den
erabat kontzientea den jendearen antzera.

Argitasuna jada zeharo da lan-orduen.
Dena hasten da mugitzen, antolatzen.
Atsegin natural eta zuzen handi batez arimarekin
ibiltzen ditut
merkantzia-untziratze bat egiteko beharrezkoak
diren transakzio komertzial guztiak.
Nire garaiak faktura guztiek daramaten zigilua da,
eta bulego guztietako eskutitz guztiek niri
zuzenduta
egon beharko luketeela sentitzen dut.

Untziratzeari buruzko ezagutzak hainbeste
nortasuna du,

eta untzi-kapitain baten sinadura hain da polita eta modernoa!

Eskutitzen hasierako eta bukaerako zorrotasun komertziala:

Dear Sirs —Messieurs— Amigos y Srs,

Yours faithfully—... nos salutations empressées...

Hau guztiau humanoa eta goi-mailakoa ezezik,

ederra ere bada,

eta azkenik badute itsas patu bat,

eskutitzetan eta fakturretan aipatutako merkantziak

untziratzeko bapore bat.

Bizitzaren konplexutasuna! Maitasunak, gorrotoak,

grina politikoak, batzuetan krimenak re badituzten

jendeek idatzitako fakturak dira—

eta hain ongi idatzita daude, hain dira zuzenak,

horretatik guztitik hain askeak.

Faktura bak ikusi eta holakorik sentitzen ez duen

jendea dago.

Ziur nago zuk, Cesario Verde, gauza bera sentitzen

zenuela.

Nik gizatasunik handienaz sentitzen dut, niri negar

eragiteraino.

Zatozte, esanez, poesiarik ez dagoela

merkataritzan, bulegoetan!

Tira bada, poro guztietatik sartzen da..., itsas haize

honetatik arnasartzen dut,

zeren hau guztiau lotuta baitago baporeei, gaur

egungo nabigazioari,

zeren gaur egungo fakturak eta eskutitz

komertzialak historiaren hasiera baitira

eta betiereko itsasoan zehar merkantziak
garraiatzen dituzten untziak bukaera bera dira.

A, eta bidaiak, atsegin-bidaiak, eta besteak,
itsasoan zeharreko bidaiak, non denok baikara
besteen kideak
modu berezi batean, itsasoko misterioak
arimetara hurbilduko bagintu eta une batez
ziurtasunik gabeko aberri bereko aberkide
iragankorrak
bilakaraziko bagintu,
uretan eternalki lekualdatzen den immensitatea!
Infinituko hotel handiak, o nire transatlantikook!
Puntu batean inoiz ez gelditzearen eta
mota guztietako jantzi, aurpegi eta arrazak
edukitzearen
kosmopolitismorik onenaz!
Bidaiak, eta bidaiariak —hainbat motatakoak!
Hainbeste nazionaltasun munduan! Hainbeste
lanbide! Hainbeste jende!
Hainbeste patu desberdin nola eman dakizkiokeen
bizitzari,
bizitzari, azken batean, hondoan beti, lehengo bera
beti!
Hainbeste aurpegi bitxi! Aurpegi guztiak bitxiak
dira
eta ezerk ez du sentimendu erlijioso handiagorik
jendeari luzaro begiratzeak baino.
Anaitasuna, ongi pentsatuz gero, ez da ideia
iraultzailea.
Batek bizitzan ikasten duen zerbait da, non dena
jasan behar duen,

eta jasan-beharrekoa erakargarritzat jotzera iristen da,
eta jasan duenarengatik samurtasun hutsez ia negarrez amaitzen da!

A, hau guztiau ederra da, hau guztiau gizatiarra da eta lotuta gelditzen da
giza-sentimenduekin, hain egokiak eta burgesak, hain konplikatuki errazak, hain metafisikoki tristeak!
Bizitza gora-beheratsu, desberdinak gizatasunean hezten gaitu azkenik.
Jende gizarajoa! Jende gizarajoa jende guztia!

Ordu honi agur esaten diot
orain abiatzen ari den beste untzi honen gorputzean. *Tramp-steamer* ingeles bat da, oso zikina, untzi frantziarra balitz bezala, itsasoetako proletario-itxura sinpatikoarekin, eta zalantzarik gabe atzo igarrita egunkarietako azken orrialdean.

Bapote gizarajoak samurtzen nau, hain apal eta hain natural doa.
Badirudi ez dakit zer-nolako eskrupuloa daukala, pertsona zintzoa-edo dela,
betekizun-mota bat edo beste betetzeko grinaz.
Handik doa lasai-lasai,
behinola, behinola
itsasuntziak egondako lekutik igaroz...
Cardiff-erantz? Liverpool-erantz? Londres-erantz?
Ez du axolarik.

Egin-beharrekoa betetzen du. Hala bete dezagun
guk geurearekin. Ederra bizitza!
Ongi ibili! Ongi ibili!
Ongi ibili, ustekabeko nire lagun horri, nire urteen
sukarra eta tristura
zeurekin eramateko mesedea egin didazu-eta,
eta bizitzara itzuli nauzu zuri begiratzeko eta
igarotzen zu ikusteko.
Ongi ibili! Ongi ibili! Hau da bizitza...

A zelako segurtasun naturala, zeinen goiztiarra
ezinbestez,
Lisboako portutik abiatu zarenean, gaur!
Maitasun bitxi eta esker onekoa dizut horregatik...
Horregatik zer? Zer dakit nik zer den! Zoaz... Igaro
zaitez...
ikara arin batekin
(T-t-t---t----t-----t...)
bolantea nire barruan gelditzen da.
Desager zaitetz, bapore motel hori, desager zaitetz
eta ez zaitetz gelditu...
Desager zaitetz nitaz, desager zaitetz nire bistatik,
zoaz nire bihotz barrutik,
gal zaitetz Urruntasunean, Urruntasunean,
Jainkoaren Lainoan,
gal zaitetz, jarrai ezazu zure patua eta utz nazazu...
Nor naiz ni negar egin eta galde egiteko?
Nor naiz ni zuri hitz egin eta zu maitatzeko?
Nor naiz ni zu ikusita asaldatzeko?
Kaitik aurrera, eguzkia igotzen, urrez goraturik,
portuko eraikinetako teilatuek distiratzen dute,
hiriaz honuntzako alde osoak dirdiraka ari da...

Zoaz, utz nazazu, bilaka zaitez
lehenik ibai erdian dagoen untzia, nabarmen eta
garbia,
gero untzia barrarako bidea harturik, txiki eta
beltza,
gero puntu lauso bat zeruertzean (o nire angustia
hau!)
zeruertzean gero eta lausoagoa den puntu bat...
ezer ez gero, eta ni eta nire tristura besterik ez,
eta eguzkiz beteriko hiria orain
eta ordu erreal eta biluzia untzirik gabeko kai baten
antzekoa,
eta altzamaiaren biraketa geldoa —biratzen duen
konpas baten antzekoa—
ez dakit nongo emozioz erdizirkulu bat trazatzen
duena
nire arimako isiltasun hunkituan...